

MARKINA-XEMEIN / Herri biblioteka, literaturarako leihoa

Markina-Xemeingo herri bibliotekak ekimen asko antolatzen ditu urte osoan herritarrak literaturara hurreratzeko.

J. FERNANDEZ SAN MARTIN

Peru Abarka sariak banatuaz ospatu zuen herri bibliotekak Liburutegien Nazioarteko Eguna domekan. Halan eta be, egun batekoa baino, egunerokoa da Markina-Xemeingo herri bibliotekaren beharra. Urte osoan jende andana ibiltzen da bertan. Aurten, esaterako, 16.000 liburu mailegu egingo dituztela aurreikusten du Igor Idoeta herri bibliotekako arduradunak: "Datuak ikusita, ez dago ukatzerik irakurzaletasuna egon badagoela herrian.

Herritarrak literaturara hurreratzeko plataforma aproposa da herri biblioteka, eta helburu horregaz hainbat eta hainbat ekimen antolatzen dituzte urtero: Irakurleen txokoa, Bularretik mintzora programa, Peru Abarka ilustrazio album lehiaketa eta Liburutegiak topaleku ekimena, besteak beste.

Krisi ekonomikoaren eragina

"Aurtengoan sekula baino ekimen gitxiago antolatu ditugu, diru faltagatik, azaldu du herri bibliotekako arduradunak.

Aurrekontua aurreko urteetakoa baino eskasagoa izan arren, orain arte antolatu dituzten ekimen gehienei eutsi die herri bibliotekak. Beste batzuk, oster, derrigorrean laga behar izan dituzte bertan behera. Umeentzako ipuin kontalari bat ekartzen zuten lehen hilero, baina aurten ezin izan dute antolatu. Bestalde, Liburutegien Nazioarteko Egunaren eta Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruko ospakizun ekintza gitxiago egin behar izan dira aurten. Dena dela, Idoetak dioenez, herri bibliotekaren ekintzak urriagotu arren orain arteko ekimenek "harrera ona dute eta sendotuta daude, Irakurleen Txokoagaz ikusten den legez, esate baterako.